TOKIKO GOBERNU TATZORDEA | JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
DATA / FECHA: 2019/04/03
HASIERA / INICIO: 19:55
AMAIERA / FINAL: 20:00

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA / ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa lehen deialdian egiteko. Zulueta jauna eta Ruiz andrea gai-zerrendaren bigarren puntuan iritsi ziren. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatutako gai-zerrendaren arabera, eta akordio-proposamen hauek egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdo:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Batzordeak aho batez adostu zuen 2019ko martxoaren 20ko saioko akta onartzea.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 20 de marzo de 2019.

**2.- Lana sustatzeko toki-ekintzak.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak 2019ko otsailaren 28ko Ebazpenaren berri jaso zuen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendari Nagusiarena, zeinaren bidez 2019 ekitaldian lana sustatzeko toki-ekintzetarako laguntzen deialdia abiatu zuen.

Bertan, Busturialdeari emandako 294.533,37 €-ko laguntzaz gain, 5.244,48 €-ko bat dago Busturiarako zehazki, % 11tik gorako langabezia-tasa duelako.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak p zuen, aho batez, eskaera egitea laguntza hori "Busturia turismo-helmugaren balioespena" proiekturako izan dadin.

**2.º.- Acciones locales de promoción de empleo.-**

La Junta de Gobierno Local fue informada de la Resolución de 28 de febrero de 2019, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2019.

En ella, además de la asignación de 294.533,37 € concedida a la comarca de Busturialdea, figura una de 5.244,48 € específica para el municipio de Busturia, por padecer una tasa de desempleo superior al 11%.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar que esa ayuda se destine al proyecto "Puesta en valor del destino turístico de Busturia".

**3.- Udalerriko auzoen izendapena.-**

Jarraian, Udalak Abiñako Andoni Deuna auzoaren izen-aldaketaren gainean egindako galderari Euskaltzaindiak emandako erantzuna irakurri zen.

Hori kontuan hartuta, eta Euskaltzaindiak berak aukera eman duenez udalerriko auzo guztien zerrenda berraztertzeko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eginkizun hori egin dezan eskatzea.

**3.º.- Denominación de los barrios del municipio.-**

Seguidamente se dio lectura a la respuesta dada por Euskaltzaindia a la consulta formulada por este Ayuntamiento respecto al cambio de denominación del barrio Abiñako Andoni Deuna.

A la vista de la misma y como desde la propia Academia se plantea la posibilidad de revisar la lista de todos los barrios del municipio, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar esa labor.

**4.- Gerra Zibila Busturian gaiari buruzko monografia.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Eusko Ikaskuntzaren 12.438,40 €-ko faktura onartzea, X. H.k Gerra Zibila Busturian gaiari buruz egindako monografiaren

**4.º.- Publicación de la monografía sobre la Guerra Civil en Busturia.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar el presupuesto de 12.438,40 €, elaborado por Eusko Ikaskuntza para editar la monografía redactada por X. H. sobre la Guerra

| | |
|---|---|
| argitalpenari dagokiona; lan hori "Lankidetzan" bilduman jasoko da: 66. zenbakiak Gerra Zibila Busturian hartuko du, eta 67.ak Errepresio Frankista (zenbaki bakoitzak 500 ale izango ditu).<br>Eusko Ikaskuntzak izapidetuko du Eusko Jaurlaritzaren mendeko Gogora-Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuari egingo zaion dirulaguntza-eskaera; erakunde horrek laguntza emango balu, Udalak zenbateko txikiagoa jarri beharko luke. | Civil en Busturia, que se incluirá en la colección “Lankidetzan”, siendo el n.º 66 referido a la Guerra Civil en Busturia y el 67 a la Represión Franquista, con 500 ejemplares cada uno.<br>Eusko Ikaskuntza se compromete a tramitar la solicitud de subvención a la Asociación Gogora-Instituto de la Memoria, la Convivencia y lo Derechos Humanos, dependiente del Gobierno Vasco, lo que redundaría, de obtenerse ayuda, en una rebaja de la cantidad a aportar por el Ayuntamiento. |
| **5.- Animatzaile soziokulturala-liburuzainaren ordezkoa hautatzeko oinarriak.-** | **5.º.- .- Bases para la selección de sustituto/a de la animadora sociocultural-bibliotecaria.-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, hauxe erabaki zuen:<br>1.- Onartzea animatzaile soziokultural-liburuzain titularraren ordezkoa hautatzeko oinarriak; ordezkoarengana joko da titularra oporretan dagoenean, edo laneko bajan, edo baimenez gozatzen ari denean... 2019an eta 2010an.<br>2.- Hautaketa-prozesua deitzeko iragarkia argitaratzea. | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:<br>1. º.- Aprobar las bases para la selección de sustituto/a de la animadora sociocultural-bibliotecaria titular, que la reemplace durante sus periodos vacacionales, permisos, bajas laborales, etc…, durante los años 2019 y 2020.<br>2. º.- Publicar anuncio convocando el proceso de selección. |
| **6.- Esquibel bideko trenbide-pasagunea.-** | **6.º.- Paso a nivel del camino de Esquibel.-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Euskal Trenbide Sareak aurkezturiko proposamenaren alde agertzea, hau da, Esquibel bideko 21/490 PK-ko trenbide-pasagunea, Amorebieta-Bermeo linean, kentzearen alde. | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó informar favorablemente la propuesta presentada por Euskal Trenbide Sarea para la supresión del paso a nivel del camino de Esquibel en el P.K. 21/490, de la línea Amorebieta-Bermeo. |
| **7.- P. H. M.en idazkia Urdairaidi buruz.-** | **7.º.- Escrito de P. H. M. sobre Urdairaid.-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen baimena ematea P. H. M.i Ekoetxea UrdaiRaid 2019 proba egin dezan, urriaren 5ean, Busturiko udal-lurrari dagokionez. | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar a P. H. M., la celebración de la prueba Ekoetxea UrdaiRaid 2019 el día 5 de octubre, en lo que afecta al territorio municipal de Busturia. |
| **8.- Landa-bideak erabiltzeko baimena, egurra ateratzeko.-** | **8.º.- Licencia de utilización de caminos rurales para la saca de madera.-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen baimena ematea J. R. M. A.i (2/19 espedientea) landa-bideak erabil ditzan egurra ateratzeko, zehazki berea duen "Jandonipe" menditik, 2.411,99 estereoan, Jandonipeko pista erabiliz. | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a J. R. M. A. (Expte. 2/19), del monte “Jandonipe”, propiedad del solicitante, por un total de 2.411,99 estéreos, utilizando la pista de Jandonipe. |
| **9.- Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean egikarituriko erantzukizun-akzioaren gaitzespenaren kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.-** | **9.º.- Recurso contencioso-administrativo contra la desestimación de la acción de responsabilidad ejercitada ante las Juntas Generales de Bizkaia.-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeak Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiak 2019ko martxoaren 26an egindako akordioaren berri | La Junta de Gobierno Local fue informada del acuerdo adoptado el 26 de marzo de 2019 por la Mesa de las Juntas |

jaso zuen, Udal honek egikarituriko ondare-erantzukizuneko akzioari buruzkoa, egikaritua 2017ko abenduaren 14ko akordioaren hirugarren baldintza onartu zelako (BAOn 2018ko urtarrilaren 19an argitaratu zen) eta San Antonioko enklabearen ezabapena onartzeko espedientean atzerapenak izan zirelako, *de facto* luzaturiko espedientea harik eta epai batek 2016ko azaroaren 23ko autoa irmotzat jo zuen arte, Auzitegi Gorenak Sukarrietako Udalak ezarritako kasazio-errekurtsoa gaitzetsi ondoren.

Aipatu akordioan, hauxe dago jasota:

"Lehena.- Ez du eskumenik era horretako erreklamazioak izapidetzeko eta ebazteko, ez delako Herri Administrazio bat, urriaren 1eko 40/2015 Legearen lehen xedapen gehigarriaren arabera; hala onartu du, zalantzarik gabe, jurisprudentzia-doktrinak (beste askoren artean, EAEANren urriaren 30eko 479/2014 Epaia, Bigarren OJ).

Zentzu horretan, organo konstituzionalek egindako jarduketengatik egikaritzen den Ondare Erantzukizunaren gaineko Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrina ere aipatu nahi dugu; zehazki, 2009ko azaroaren 26ko epaia, 2009ko azaroaren 27koa, 2014ko irailaren 29koa eta Auzitegi Konstituzionalaren 112/2018 Epaia.

Bigarrena.- Nabarmendu beharra dago, halaber, Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dutela ordenamendu juridikoaren kontrako inolako jarduketarik egin, aipatu prozeduran atzerapen desegokiak eragiteko modukorik, eta jardun dutela Bizkaiko Lurralde Historikoaren ordezkari izateko duten funtzioa erabat errespetatuta, dagokion Araudian eta aplika daitezkeen gainerako arauetan ezarritako prozeduraren arabera".

Hori guztia kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aipatu akordioaren kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea, eta Osoko Bilkurari, haren hurrengo bileran, horren berri ematea, erabakia berrets dezan.

Generales de Bizkaia en relación con la acción de responsabilidad patrimonial ejercitada por este Ayuntamiento como consecuencia de la aprobación de la cláusula tercera del acuerdo de 14 de diciembre de 2017, (publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia de 19 de enero de 2018), así como por las dilaciones en el expediente de aprobación de la supresión del enclave de San Antonio, prolongado de facto hasta la declaración como firme judicialmente del auto de 23 de noviembre de 2016, tras rechazar el Tribunal Supremo el recurso de casación interpuesto por el Ayuntamiento de Sukarrieta.

En dicho acuerdo se manifiesta que:

“Primero.- Que carece de competencia para tramitar y resolver reclamaciones de esa naturaleza, porque no se trata de una Administración pública, según se desprende de la disposición adicional primera de la ley 40/2015, de 1 de octubre y así ha reconocido inequívocamente la doctrina jurisprudencial (entre otras muchas la Sentencia del TSJPV no 479/2014, de 30 de octubre, FJ Segundo).

Invocamos en este sentido también la doctrina jurisprudencial del Tribunal Supremo sobre la Responsabilidad Patrimonial por actuaciones de órganos constitucionales en sus sentencias de 26 de noviembre de 2009, de 27 de noviembre de 2009, de 29 de septiembre de 2014 y la Sentencia del Tribunal Constitucional 112/2018.

Segundo.- Debe destacarse, asimismo, que debe entenderse que estas Juntas Generales de Bizkaia no han incurrido en ningún momento en actuaciones antijurídicas, generadoras de dilaciones indebidas en el procedimiento de referencia, y que han actuado con pleno respeto a su función representativa del Territorio Histórico de Bizkaia con arreglo al procedimiento establecido en su Reglamento y demás normativa aplicable”.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó recurrir en vía contencioso-administrativa el citado acuerdo, dando cuenta al Ayuntamiento Pleno en la primera sesión que celebre para su ratificación.

**10.- E. M. P.ren idazkia.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, ez onartzea E. M. P.k eskaturiko baimena San Antonioko hondartzako bi aparkalekutan *foodtrack* bat ezartzeko. Izan ere, Udalak, laster barru, jabari publikoko toki bi lizitatuko ditu izozkiak edota elikagaiak saltzeko postuak jarrai ahal izateko. Hala, baimen-eskatzailea lizitazio horietara aurkez daiteke.

**10.º.- Escrito de E. M. P.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegar la autorización solicitada por E. M. P. para la colocación de una food track en dos aparcamientos de la playa de San Antonio, dado que el Ayuntamiento próximamente va a licitar varios lugares de dominio público en los que se puedan instalar puestos de venta de helados y/o alimentos y pueden presentarse a esa licitación.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, akta hau idatzi da, Alkate jaunak eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dudanak, sinatu duguna.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea / El Alcalde,

Izp. / Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

Idazkaria / El Secretario,

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez